

Euskal antropologia doluz

Julio Caro Barojaren hileta elizkizunak gaur arratseko 18.30etan egingo dira Nafarroako Beran

Julio Caro Baroja antropologo ezaguna atzo goizaldeko ordu bietan hil zen, Berako (Nafarroa) Itzea etxean. Atzo egun osoan kultur nahiz politika arloko jende ezagun anitz inguratu zen etxalde horretan dagoen hil kapera ikustera eta sendiari doluminak ematera. Elizkizunak gaur arratsaldeko 18.30etan egingo dira, Berako San Esteban elizan.

A. ORMAETXEA / BERA

Julio Caro Baroja 80 urteko antropologo eta idazleak atzo goizaldeko ordu bietan itxi zituen betiko begiak, Caro Baroja sendiak Nafarroako Bera herrian duen Itzea etxean. Antropologoak diabetea zuen eta bere osasunak okerrera egin zuen joan zen azaroan. Hilabate asko ziren Caro Baroja etxetik ateratzen ez zela, eta bere bizitzak azken hantak hartzen ari zela jakinaren gainean zen familia.

Hileta elizkizunak gaur arratsaldeko 18.30etan egingo dira Berako San Esteban elizan. Onoren, antropologoaren gorpuari betiko lur emango zaio sendiak herriko kanposatuan duten panteoian, hori baitzen bere nahia.

Hil kapera Itzea etxea bertan kokatu zen atzo goizean. Caro Baroja sendiak 'museoa' izenarekin ezagutzen duen bigarren solairuko gelan kokatu zen zerraldoa.

Zerraldoa gela erdi-erdian kokatua zegoen eta puntilazko zapi zuri batek estaltzen zuen erditik behera. Caro Barojaren gorpua krobixet batek inguratzen zuen eta aurpegia soilik zegoen agerian. Atzealdean hiru



Pio Caro Barojak saminez baina abegitsu harrera egin zien atzo Itzeara inguratu zirenei.

EDURNE KOCH

klabelin eta gladiolo koroa zeuden; Gipuzkoako Diputazioarena bata, Nafarroako Gobernua-ren bestea eta gobernu honetako Hezkuntza Kontseilariaren hirugarrena. Albo batean Biana-ko Printzea Erakundearen lore sorta zegoen, eta zerraldoaren azpiko aldean arrosak eta zitorriak.

Antzinatasuna darien erlijio kutsuko koadroek eta euskal tradizioak altzariek dotoretzen zuten gela. Koadroen artean Ricardo Baroja Pioren anaia zenak margotutako itsasontzien bi koadro handi nabarmendu behar dira. Sabaian, berriz, XVIII. mendeko untzi bat eta diseatutako arrano bat zeuden zintzilik.

Pio Caro Baroja Julioren anaiak EGUNKARIARI atzo adierazi zionez, «Julioren heriotza galera handia izan da Euskal He-

rriko eta Espainiako kulturarentzat; azken batean, kulturarentzat orokorrean. Mundu osoan ezaguna zen, herri eta jende askori kezka eragiten zien arazoak esku artean hartu zituen: juduen, moriskoen eta sahararren gaiak landu zituen. Kultura ikaragarria zuen gizona izan zen, eta hori oso garrantzitsua da, gaur egun honen pareko aitor daitezkeen balore gutxi baitago. Arruntasuna eta nahastea nagusi diren gizarte batean bizi gara gaur, eta Julio exenplu bat zen gazteriarentzat. 14 urte zituen geroztik lan egin zuen, milaka eta milaka orri idatzi zituen 80 urte bete zituen artean».

DOLU EGUNA BERAN Berako herriak dolu eguna bizi izan zuen atzo. Herriko ikurrina, krespoi beltz eta guzti, mastaren

erdiraino igo zen udaletxeko balkoian. Eta herriko zinegotziak nahiz alkatea hileta elizkizunean izango dira gaur. Javier Otano Nafarroako Gobernuako lehen-dakaria ere han izango da.

Eusko Ikaskuntzak eta EAEko unibertsitateek, bestalde, omenaldia egingo diote antropologoari irailaren 27an, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutzak antolatuta Donostiako Miramar jauregian egingo den ekitaldian. Bai Gizabideko bai Gizarte Zientzietako kurrikulum onenaren saria emango zaio Caro Barojari.

Lur argialetxea Julio Caro Barojak Euskal Herriaz eta euskal gaien inguruan idatzitako idazki guztiak biltzeko lanean dabil. Obrak izango dituen bost tomoetatik bi kalean dira dagoneko.

Dolumin ugari iritsi zen Itzeara

BERA

Dolumin eta nahigabe hitzak entzun ziren pertsona ezagun askoren ahotan, Julio Caro Barojaren heriotzea dela eta.

Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura kontselariak nahigabe handia azaldu zuen heriotza hau dela eta, «gure herriko intelektualik polifazetikoenetakoa galdu baitugu». Nafarroako Gobernuako Kultura kontseilaria den Pedro Burillok, berriz, Julio Caro Barojak Nafarroaren alde egindako lan eskerga izan zuen gogoan, «bera aitzindari izan zen, Nafarroako kultur eta histori ondarea berreskuratzeko lanean».

Euskaltzaindiko lehendakariak, Jean Haritzelharrek, ororen gainetik «pentsamenduan askea zen gizona» zela esan zuen eta «Euskal Herriko kulturaren eza-gutzari ekarpen handiak» egin zizkiolako zela Euskaltzaindiko ohorezko kide. Agustin Ibarrola eskultore ezagunak era berean, nahigabez, Julio Caro Baroja antropologoa izan zuen ahotan: «Bere ikerketen bidez ni nabarmen hurbildu nintzen euskal mundura».

Hitz gogorrak izan zituen, ordea, Bartzelonako Ikerketa Zientzietako Antropologia Saileko arduradun den Manuel Mandianesek: «Caro Baroja baztertua egon zen Guda Zibile-tik», antza denez «Espainiako zenbait antropologorekin zituen ezadostasunak zirela medio». Bere zakar fama erabat oinarri-gabea zela esan zuen Mandianesek. Espainiako Errege-Erreginak ere dolumin telegrama bat igorri zuten.

EUSKOTRENBIDEAKen TREN TURISTIKOA

Euskotrenbideen eskuz igo zaitez jaietako trenean

Pasa ezazu zure familia ta lagunekin egun ahaztezina, historioz beteta dagoen tren batean. Goza ezazu Euskadi bisitatzen eta bere pasaia, herriak eta jaiak ezagutzen giro desberdin batetan.

BILBOKO ASTE NAGUSIAN ere, inoiz gozatu duzun bezala dibertitu ahal izango duzu **Euskotrenbideak zuretzat ipintzen duen TXU-TXU trenean**, hiritik bira bat ematen.

ZORIONAK!!



EUSKOTRENBIDEAK



Informazio Telefonoa:
(94) 433 80 07-08

